

EUNEIZ Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate pribatu gisa ezagutzeko lege-proiektuari dagokionez, honen bidez ondorengo jakinarazten dizut: argibideen II. eranskinaren arabera generoaren ikuspuntutik garrantzirik ez duela justifikatzeko araua sustatu duen organoak txostena eman duen arren, arauak funtsean izaera normatiboa duela kontuan hartuta, ez zaio generoaren araberrako eraginari buruzko txostena exijitu behar, aplikatzeko modukoa baitzaio generoaren araberrako eragina baloratzeko alde aurretik egin beharreko ebaluazioari eta desberdintasunak ezabatzeko eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak,- 2012ko abuztuaren 21eko Gobernu Kontseiluan onartu ziren neurri horiek,- gehitzeari buruzko argibideetako lehenak 2.1.b) atalaren puntuan xedatutako salbuespena.

Abenduaren 21eko 6/2001 lege organikoak, Unibertsitateenak, unibertsitate publikoei dagoeneko egin zaizkien exijentziak egiten dizkie unibertsitate pribatuei. Lege horrek, ikastetxeak libreki sortzeko Konstituzioan aitortuta dagoen printzipioa errespetatuz, unibertsitate publiko eta pribatuen ezagutza, funtzionamendu eta erregimen juridikorako baldintzei buruzko funtsezko alderdiak zehatz arautzen ditu. Halaber, unibertsitate pribatuen definizio hau ematen du: ezarriko diren lurralde eremuko Legegintza Asanbladak izaera hori ematen dien horiek. Ari garen arau-proiektuaren edukiari dagokionez, EUNEIZ unibertsitate pribatu gisa ezagutzea du helburu eta egitura eta funtzionamenduari lotutako alderdiak, era orokorrean, arautzen ditu. Horregatik, eta argibideetan ezarritakoaren arabera, emakume eta gizonen egoerari begira funtsezkoa ez dela pentsatzen da eta, ondorioz, lege-proiektuak ez luke generoaren araberrako eraginari buruzko txostena gaineratu beharko. Izan ere, salbuesteko lehen argibidearen 2.1.b), c) edo d) ataletan xedatutako arrazoietakoren bat aplikatzeko modukoa den ari garena bezalako kasuetan, araua sustatzen duen organoak du, zirkunstantzia hori espedientean jasota utziz, Emakunderi txostena eskatu behar izan gabe tramitazioarekin aurrera jarraitzeko aukera.

Edonola ere, eta lehen xedapen gehigarriari dagokionez, erredakzioa osatzea, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren eremuan dagoen araudia aipatuz, proposatzen dugu. Horrela

gera daiteke:

*”Emakume eta gizonen arteko berdintasuna finkatzeko ekimenak sustatu beharko ditu unibertsitate-arlo guztietan EUNEIZ unibertsitateak, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren eremuan aplikatzeko modukoa den araudian eta, bereziki, Euskal Unibertsitate Sistema erregulatzen duen legeriaren xedatutakoaren arabera “.*

Azkenik, maskulinoan bakarrik agertzen diren terminoak, “graduados “, “ciudadanos “, “estudiantes “ ... , berrikusi eta egokitu behar dira, hizkuntzaren erabilera sexista ez egiteko, otsailaren 18ko 4/2005 legeak, emakume eta gizonen arteko berdintasunarenak, 18.4. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 11a.